

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

**Getxoko Udalerrian jarduera ekonomikoari eragitearren 2018 urterako diru-laguntzak emateko deialdiaren laburpena, Toki Gobernu Batzarrak 2018ko urtarrilaren 16an hartutako 11 Akordioak erabakitakoa. BDNS (Identif.): 382585.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat etorruta, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi izanez gero, Diru Laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

**Lehena. — Onuradunak**

1. *Nortasun juridikoa duten elkarteak, legez eraturakoak. Zehatz-mehatz esanda, honakoak:*

- A) Getxoko udalerriko merkatarien eta ostalarien elkarteak, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:
  - Jarduera eta sozietatearen egoitza Getxoko udalerrian izatea.
  - Getxoko erakundeen udal-erregistroan inskribatuak egotea.
- B) Elkarteak, beren helburu sozialaren barruan Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan erregistratutako agente eta enpresak edo enpresa izaerako elkarte eta federazioak profesionalizatzea badute, betiere jarduerak Getxoko udalerrian egiten baldin badituzte.

2. *Nortasun juridikorik gabeko elkarteak.*

Nortasun juridikorik gabeko elkarteek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Gutxienez hiru pertsona fisiko edo juridiko izatea Ondasun (erkidegoak baita).
- Kide guztiek merkataritza- edo enpresa-establezimendua Getxon izatea, baita jarduera ekonomikoa ere.

3. *Laugarren lerrorako:* erakunde onuradunak dira Getxon egoitza duten enpresak eta enpresen elkarteak —nortasun juridikorik gabekoak—, eta Getxoko udalerrian egoitza izan gabe ere euren turismoko jarduera nagusia Getxoko udalerrian egiten dutenak, modu erregularrean, edota Getxon turismo-jarduera bat egiten dutenak, bakarra / berezia dena eta destinoa mesedetzen duena.

Eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak, hala ogasunarekikoak nola udala eta gizarte-segurantzarekikoak.

**Bigarrena. — Xedea**

Oinarri orokor hauen xedea Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenak diru-laguntzak emateko prozedura arautzea da. Horiek pertsona fisiko eta juridikoei emango zaizkie (Ondasun erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko elkarteak barne), diruz lagundu behar den jarduera Getxoko udalerrian egiten bada eta Getxoko udalerriko jarduera ekonomikoaren onurarako badira.

**— Diru-laguntzaren lerroak**

Ondoren, eskaerak aurkezteko diru-laguntzen lerroak aipatzen dira.

Diru-laguntzaren lerro bakoitzeko oinarri arautzaile bereziak I. eranskin bezala erantsen zaizkie oinarri orokor hauei.

- 1. lerroa: Getxoko merkatarien edo/eta ostalarien elkarteei eta merkatarien edo/eta ostalarien elkarteak multzokatzen dituzten Bizkaiko lurraldeko federazio eta beste erakunde batzuei bideratuta dinamizazio ekonomikoaren jarduerak egiteko laguntzak.
- 2. lerroa: Udalak bultzatu nahi dituen eremu estrategikoetan adituen eta enpresarien elkarteei bideratuta, dinamizazio ekonomikoaren jarduerak egiteko laguntzak.
- 3. lerroa: nortasun juridikorik ez duten elkarteei bideratuak, dinamizazio ekonomikoaren jarduerak egiteko laguntzak.
- 4. lerroa: nortasun juridikorik gabeko enpresa eta elkarteei bideratuta, jarduera turistiko erregularrak abian jartzeko laguntzak.

**Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak**

Oinarri arautzaileak, orokorrak eta berariazkoak, Getxoko Udaleko Toki Gobernuko Batzarrak 2018ko urtarrilaren 16an erabakitako 11. zenbakia Akordio bidez onetsi ziren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira deialdiaren argitarapenaren egun berean.

**Laugarrena. — Zenbatekoa**

Aurrekontu-kreditu erabilgarria: 220.000 euro 1.eta 4. lerroak barne.

Zenbateko horrek diru-laguntzen 1. ildoari dagozkion 10.000 euro hartzen ditu barne; diru hori 1. ildoko oinarri berezien 3. idatz-zatian jasotako kasuan emango da soilik.

**Bosgarrena. — Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko hilabeteko epea emango da, oinarri bereziak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren unetik zenbatzen hasita.

Getxon, 2018ko urtarrilaren 18an.—Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako zinegotzia, Ignacio Uriarte Gorostiaga